

MERKATUAREN

SEGMENTAZIOA



Langabe batek, batez beste, hamabost hilabete behar ditu lana aurkitzeko, krisia hasi aurretik baino hiru hilabete gehiago, Asembleo-Afi elkartearen txosten baten arabera. Espainian, 2018an, 2014an ikasketak amaitu zituzten tituludunen %27,7k (233.626 tituludunetatik) ez zuen enplegurik. Horixe dio Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak aurkeztutako unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenen laneratzea txostenak.

Denbora horretan, pertsona horiek soilik lan bat bilatzen dute eta ez dute denbora hori aprobetxatzen zerbait emankorra egiteko.

Bezeroak, edozein enpresatan bezala, negozioaren oinarri bat izaten dira. Enpresa baten helburua diru-sarrerak maximizatzeaz gain, bere bezeroek duten arazo bat konpontzea edota beharizan bat asetzea da.

Gure enpresaren kasuan, ikastaroak eskaintzen ditugunez, **bezeroen profila oso zabala** da. Gure bezeroak **adin nagusiak** izan behar dira, hau da, 18 urte gorako pertsona guztiak gure zerbitzuak erabil ditzakete, baldin eta **ikastaroak ordaintzeko dirua badute**. Hauek emakumeak zein gizonak izan daitezke.

Hala ere, **bezeroen segmentazio** bat egingo dugu **adinaren eta lan egoeraren arabera**. Lan egoeraren arabera, bezeroak honela sailkatzen dira: **ikasleak, langileak, langabeak eta erretiratuak**. Bezero gehienak langabezia egongo lirateke eta haien formazioa handitzea bilatzen dute lana aurkitzeko edo jubilatuak izango lirateke eta haien jakindura hedatzeko ikasi nahi dute, ez lana mantentzeko. Langileak formazio gehiago lortzea nahi dute bere lanpostua hobe dezaten. Guzti hauek behar eta arazo pixka bat desberdinak dituztelako adinaren arabera ere segmentatuko genituzke. Bestalde, gure enpresak **txartel eta harpidetza desberdinak** eskaintzen dituzenez gero, **diru-sarrearen arabera** ere desberdin daitezke gure bezeroak.

Alabaina, gure enpresak ikastaroak **presentzialki** zein on-linen ematen baditu, hauek presentzialki hartzeko bezeroak **Euskal Herrian bizi** beharko lukete, gutxienez hasieran. Enpresa handitzen duenean, baldintza hori ez litzateke beharrezkoa izango.

Halaber, **bezeroak enpresen lan-eskaintzatan aintzat hartuak izateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) titulua izan** behar dute, baina ez litzateke beharrezkoa izango ikastaroak jasotzeko.

Bibliografía:

- https://www.teinteresa.es/empleo/parado-Espana-volver-encontrar-empleo_0_1600639970.html
- https://elpais.com/sociedad/2019/07/03/actualidad/1562170185_829639.html